



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**OGASUNA BARNE ANTOLAKUNTZA, PERTSONALA, KONTRATAZIOA, SUSTAPEN
EKONOMIKOA ETA MERKATARITZA BATZORDE INFORMATIBOAREN IRIZPENA**

**KONPROMISO-KREDITUA BAIMENTZEA, UDALA ETA AZKOITIA LANTZENEN ARTEKO
HITZARMENAREN ARABERA OÑEDERREKO LIXIBIATUEN TRATAMENDUA AZKOITIA
LANTZENEK FINANTZATZEKO**

AURREKARIAK

1.- 2016ko maiatzaren xxxan Alkate Lehendakariaren Dekretua bitartez Udala eta Azkoitia Lantzenen arteko hitzarmena onartu zen, Oñederreko aspaldiko zabortegean lixibiatuen tratamenduaren finantziazioa arautzeko.

2.- Hitzarmenaren Udalak Azkoitia Lantzeni emango dion dirulaguntzaren kopurua zehazten da. Urteko aurrekontua 100.000,00 euro da BEZik gabe.

3.- Hitzarmenaren epea urtebatekoa da eta beste urte batez luzatu daiteke

4.- Hitzarmenaren finantziazioa:

2016ko ordainketa kredituak: 50.000,00 €

2017rako konpromiso kredituak: 100.000,00 €.

2018rako konpromiso kredituak 50.000,00 €

RESUMEN GENERAL		LABURPEN OROKORRA							
IDENTIFICACIÓN DEL GASTO		GASTUA: LIXIBIATUEN TRATAMENDUA AZKOITIA LANTZENEK FINANTZATZEKO DRU LAGUNTZA							
Izena (1)	Onarpen data (2)	Plazo gestión(3)		Kopurua Guztira	Konpromisozko kredituak		Organo Kudeatzailea	Finantziazioa	
		Urtea Hasera	Urtea Bukaera		2.017	2.018		Erakundearena	Besterena
LIXIBIATUEN TRATAMENDUA AZKOITIA LANTZENEK FINANTZATZEKO DRU LAGUNT	25/05/2016	25/05/2016	25/05/2018	150.000,00	100.000,00	50.000,00	Hirigintza	150.000,00	0,00

OINARRI JURIDIKO ETA EKONOMIKOAK

1.-KONPROMISO-KREDITUAK:

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak dio 22. artikuluan, konpromiso-kredituen orria ekitaldian zehar konprometitu ahal diren urte anitzeko gastu guztiek osatzen dutela eta hura onesten denean beraiek bideratzeko baimena egongo da, ezarritako baldintzetan.

2.- KREDITUEN KOPURUA:

22.2 atalak dio konpromiso-kredituen orrietan bakoitzarentzat zenbateko osoa eta beraren burutzapenerako aurreikusitako ekitaldiak adieraziko dira.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Etorkizuneko ekitaldi bakoitzerako indarreko konpromiso-kredituen zenbateko metatua ezin da izan erakundearen likidatutako azken ekitaldiko eragiketa arrunten ziozko baliabideen % 25 baino gehiago, 6.3 e) artikuluan eskatutako azterlanetik muga txikiagoa sortu ezear.

Konpromiso-kredituak bestek finantzatzen baditu, finantzaketaren zenbatekoa ez da konputatuko gastu gisa aurreko paragrafoan aipatutako mugen ondoreetarako.

2016.urtean Udalaren aurrekontuan jasotako konpromiso kredituen kopurua 1.779.713,01 €koa da. Kopuru honi Azkoitia Lantzenek lixibiatuen tratamendua finantzatzeko Udalak emango dion dirulaguntzaren kopromisozko kredituak gehitzen badizkiogu (150.000,00 €), Azkoitiko Udalak 2016. urtean onartuko konpromiso kredituen kopurua guztira 1.929.713,01 € lirateke.

Udalaren era kontsolidatuan likidatutako azken ekitaldiko eragiketa arrunten ziozko baliabideak 15.934.353,12€ izan ziren eta honen % 25a 3.983.588,28 €, beraz ez legoke arazorik konpromisozko kreditu hauek onartzeko.

3.-GASTUAREN BAIMENA ETA ERABILERA

Udaleko Aurrekontua gauzatzeko Udal Arauak 6.2 atalean gastuaren baimena eta erabilera arautzen ditu. Atal honek dio Udalbatzarraren eskumena izango da 1.304.312,04 eurotik gorako gastuen, nahiz konpromisozko kredituek finantzatzen dituztenen baimena eta erabilera,

KONKLUSIOAK

1.-Kontuhartzaitza honek ez du arazorik ikusten konpromiso kreditu hau onartzeko. Honako ezaugarriak edukiko lituzke:

GASTUA:LIXIBIATUEN TRATAMENDUA AZKOITIA LANTZENEK FINANTZATZEKO DRIU LAGUNTZA					
EXEKUZIO URTEA	ZENBATEKOA EUROTAN IMPORTE	FINANTZ BALIABIDEAK/RECURSOS FINANCIEROS			Finantziazioa
		Aurrezki Arrunta	Beste hainbat sarrera	GUZTIRA TOTAL (F)	guztira TOTAL FINANCIACIÓN
2.017	100.000,00	100.000,00		100.000,00	100.000
2.018	50.000,00	50.000,00		50.000,00	50.000
					0
Guztira	150.000,00	150.000,00	0,00	150.000,00	150.000

2.- Gastuaren baimena Udal bilkura osoari dagokio.

Kontuhartzaileak,

2016ko maiatzaren 12an



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

IRIZPENA

Lehenengoa- Aurrean jaso den txostena ikusita, proposatzen da 2016.urterako konpromiso kreditua onartzea, 150.000,00 €koa, honako ezaugarriak dituen:

GASTUA:LIXIBIATUEN TRATAMENDUA AZKOITIA LANTZENEK FINANTZATZEKO DRIU LAGUNTZA						
		FINANTZ BALIABIDEAK/RECURSOS FINANCIEROS			Finantziazioa	
EXEKUZIO URTEA	ZENBATEKOA EUROTAN IMPORTE	Aurrezki Arrunta	Beste hainbat sarrera	GUZTIRA TOTAL (F)	guztira TOTAL FINANCIACIÓN	
2.017	100.000,00	100.000,00		100.000,00	100.000	
2.018	50.000,00	50.000,00		50.000,00	50.000	
Guztira	150.000,00	150.000,00	0,00	150.000,00	150.000	0

RESUMEN GENERAL	LABURPEN OROKORRA								
IDENTIFICACIÓN DEL GASTO	GASTUA: LIXIBIATUEN TRATAMENDUA AZKOITIA LANTZENEK FINANTZATZEKO DRIU LAGUNTZA								
Izena (1)	Onarpen data (2)	Plazo gestión(3)		Kopurua Guztira	Konpromisozko kredituak		Organo Kudeatzailea	Finantziazioa	
		Urtea Hasera	Urtea Bukaera		2.017	2.018		Erakundearena	Besterena
LIXIBIATUEN TRATAMENDUA AZKOITIA LANTZENEK FINANTZATZEKO DRIU LAGUNT	25/05/2016	25/05/2016	25/05/2018	150.000,00	100.000,00	50.000,00	Hirigintza	150.000,00	0,00

Bigarrena.- Espedientea Udaltzarrak onartu behar du eta ezarritako informazioari, erreklamazioari, publizitateari eta errekurtsioei buruzko izapideak aplikatu behar ditu Aurrekontu Orokorra onartzeko. 21/2003 Foru Arauak, 15.artikuluaren esanetan, jendeaurrean jarriko dela, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki-oholean eta gehien zabaltzen den egunkarian iragarri ondoren, hamabost egun jarri ere, eta epe hori bukatuta erreklamazioari ez bada izan, berriz ere ipiniko da iragarki-oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Hirugarrena.- 2016rako aurrekontuak prestatzeko Gipuzkoako Toki Entitateek jarraitu beharreko jarraibideak, Aldizkari Ofizialean 2015eko azaroaren 25ean argitaratutakoak erregela batzuk zehazten ditu 2016ko aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko, aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzko arauditik eratorritako defizitari eta zor publikoari lotutako helburuak betetze aldera.

4. erregelak dio Toki Entitateko kontu hartzaileak txosten bat egin beharko duela aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

araua betetzeari buruzkoa. Aipatutako txosten hori aurrekontua onartzean, aldatzean eta likidatzean egin beharko da.

Konpromiso kreditu hauen onarpenak ez du aldatzen 2016ko aurrekontua, beraz eragiketa honek ez du aurrekontu egonkortasunaren helburuaren azterketarik eskatzen.

Laugarren.- Espedientearen kopia bat bidali beharko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari, azaldutako Foru Arauaren 15.3 artikulua adierazten duen tramitazio-fasean.

Azkoitian, 2016ko maiatzaren 23an

Batzordeko idazkaria

ALDEKO BOTOAK: Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Miguel Angel Bastida, Sonia Vázquez, Maitane Unanue, Miguel Reimundez, Jose Joakin Etxaniz

KONTRAKO BOTOAK: Gaizka Larrañaga, Ainara Goenaga